


«IKUSEZINA IKUSTEKO BETAURREKOAK»

Desberdintasuna eta Elkarbizitzari buruzko
Proposamen Didaktikoa

(Lehen Hezkuntza, 8tik 12 urtera)



Nieves Ledesma Marín,
Lucía Pellejero Goñi eta
Javier Monzón González

**Desberdintasuna eta elkarbizitzari buruzko Proposamen Didaktikoa: «Ikusezina Ikusteko Betaurrekoak»
(Nafarroako Unibertsitate Publikoko EDHO-I taldea)**

«Ikusezina ikusteko betaurrekoak» proposamen didaktikoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hezkuntza Holistikoa eta Inklusiboa (EDHO-I) ikerketa taldeak landu du, «Desberdintasuna eta elkarbizitza: Gaixotasun ezohikoak dituzten haurren kontrako eskola-jazarpenaren prebentzioa» ikerketaren harira. Ikerketa hori Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak (Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusia) finantzatu du.

TESTUA

Nieves Ledesma Marín, Lucía Pellejero Goñi eta Javier Monzón González.

GERNA-ren (Nafarroako Gaixotasun Arraroen Taldea), Iluna Producciones antzerki konpainiaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Hizkuntza Plangintzarako Zuzendaritza laguntzarekin.

ILUSTRAZIOAK

Azala: Itziar Goñik (Horixe Diseño) egin ditu «Ana eta Erreinu Ikusezineko betaurrekoak» ipuinaren ilustrazioak (GERNA, 2021)

Ana Montaña: Iluna Producciones antzerki konpainia (<https://www.ilunaproducciones.es/>)

Gainontzeko irudiak: Freepik.com

2021ko abenduan,

Testuaren ©: Nieves Ledesma Marín, Lucía Pellejero Goñi eta Javier Monzón González

Ilustrazioen ©: GERNA, Iluna Producciones konpainia eta Freepik.com

ISBN: 978-84-09-36996-6



Obra hau libreki kopiatu, banatu eta publikoki komunikatu ahal izango da, betiere egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialeterako erabiltzen ez bada. Ezin da obra hau aldatu, eraldatu edo bertatik eratorritako obrarik sortu.

Eskura dago Academica-e (NUP) gordailuan: <https://hdl.handle.net/2454/41356>



I. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN SARRERA ETA HELBURUAK

«IKUSEZINA IKUSTEKO BETAURREKOAK» proposamen didaktikoa **Lehen Hezkuntzako geletan (8tik 12urtera) «Desberdintasuna eta Elkarbizitza» gaian** sakontzeko diseinatua dago. «*Elkarbizitza eta hezkuntza inklusiboa: gaixotasun ezohikoak dituzten haurren kontrako eskola-jazarpenaren prebentzioa*» ikerketa proiektuaren barruan sortu da, zeina Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak (Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusia) finantzatu eta Lucía Pellejero Goñik zuzendu duen; proiektua egiteko orduan kontuan hartu dira aurretiaz egindako ikerketetan jasotako emaitzak (LEDESMA eta PELLEJERO, 2017)¹.

Proposamen honen **helburua da ikasleek gogoeta egitea**, beren bizitzako esperientzietan oinarrituta, **pertsona guztiok dugun edo nahi dugun horretaz, desberdintasunaren balioaz, pertsona orok hezkuntzarako eta errespetuzko tratua jasotzeko duen eskubideaz eta elkarbizitza positiboaz, zaintzaz eta maitasunaz**. Zehazki, honakoak dira bere helburu didaktikoak:

- Ikasleei ulertzen laguntzea **gizaki guztiok garela berdinak eta desberdinak** hainbat alderditan; **desberdintasuna (baztertzalea ez dena) aberastasuna dela**, eta horretatik elika gaitezkeela hazteko, eta **guztiok daukagula maitatuak eta errespetuz hartuak izateko eskubide bera**.
- **Beste umeei ematen zaien eta normalizatuta dauden tratu txarreko egoerak identifikatzen** (pertsona desberdinak) laguntzea, eta eraso jasotzen duen pertsonarengan **eragiten duen minaz jabetzen**.
- **Gizakiok maitasuna jasotzeko dugun bizi premia jabetzen eta elkar arduraz zaintzeko zer egin dezakegun pentsatzen** laguntzea, Giza Eskubideen Adierazpenean (1948) onartzen den **duintasunerako eskubidea** bete dadin.

Proposamen didaktiko honen beste helburu bat da ikasleen **prestakuntza integrala** bultzatzea eta garrantzia ematea **ikasleen oinarrizko gaitasunei**, batez ere **gizarterako eta herritartasunerako gaitasunei**. Prestakuntza horretan **ikasleen bizipen eta gogoeta propioak oinarri hartuta** lan egingo litzateke, elkarren artean lotutako hiru alderditan eragiteko: **pentsamenduan, sentimenduetan eta ekintzetan**. **Pentsamenduan** eragiten da, beraien espiritu kritikoa eta balio-sistema eratzen lagunduz, giza eskubideekin lotuta, eta beste pertsonetikiko errespetua eta zaintzari garrantzia emanda. **Sentimenduetan** eragiten da, beste umeei harremanetan emozionalki beren barrura begiratzen lagunduz, bizipen eta gogoeta esperientzien bidez garatuz enpatia, autoestimua, maitasuna, etab. **Ekintzetan** eragiten da, beste umeak (eta beste pertsona oro) eta beraien burua zaintzeko errespetuzko jarrerak garatzen lagunduz.

Proposamen honetan pixka bat sakontzen da **gaixotasun arraro edo ezohikoei** buruz, baina kontuan hartu beharko lirateke ikasleen **beste desberdintasun/beharrak**, baita gela barruan **berdinen arteko harremanak** nolakoak diren ere, ikasle guztiok modu inklusiboan parte har dezaten ariketetan/ekintzetan eta inor ez dadin baztertuta sentitu lan hori egiteko orduan.

Proposamena ataza bakar gisa aurkezten bada ere, **posible da ariketa edo jarduera batzuk une zehatz batzuetan egiteko modukoak izatea, gelan egoera arazotsuren bat sortuz gero**, ikasleek gai jakin horiek landu beharra dutenean, proposamen didaktiko osoa egin behar izan gabe.

¹ LEDESMA, Nieves eta PELLEJERO, Lucía (2017). «Voces de madres y de menores con enfermedades poco frecuentes en la comunidad foral de Navarra», in MONZÓN, J.; AROSTEGUI, I.; OZERINJAUREGI, N. (2017; 149-179 or.). *Alumnado con enfermedades poco frecuentes y escuela inclusiva*. Bartzelona: Octaedro: 149-179.

II. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA:

«IKUSEZINA IKUSTEKO BETAURREKOAK»

«IKUSEZINA IKUSTEKO BETAURREKOAK» proposamen didaktikoa Lehen Hezkuntzan erabiltzeko diseinatu da, «desberdintasuna eta elkarbizitza» gaiaren harira, eta **ikasketa eta zerbitzu solidarioko (I+ZS) metodologiaren arabera egiteko ataza** gisa azaltzen da. I+ZS esperientzia honen zerbitzua zentroko beste ume, irakasle eta familiei desberdintasunaren balioaz eta maitasunaz zein besteeikiko eta geure buruarekiko zaintzaz komunikatzean datza, sentsibilizazio-ekintza baten bidez, guztiok egunerokotasunean gogoratu beharko genituzkeen kontuak baitira harreman gizatiarrago eta gogobetegarriagoak eraikitzeko.

ATAZA

Desberdintasunari eta elkarbizitzari buruz ikasiko duguna beste pertsona batzuei kontatu, harreman eta tratu ona bultzatzeko.

Sentsibilizazio-ariketak, proposamen didaktiko honekin ikasitakoa zabaltzea, sendotasuna hartuko du honako horma-irudi hau egiten bada: «**IKUSEZINAREN ZUHAITZA = MAITASUNAREN ZUHAITZA**»; Lehen Hezkuntzako ikasleek osatuko lukete (proposatutako azken ariketan (14) edota 2, 3 eta 4. ariketak egin bitartean), eta bertan idatzita batzarrak (ariketak) egiten dituzten bitartean ikasten dutena. Horregatik, irakasleak erabakitzen badu horma-irudi hori hasieratik egiten hastea komeni dela, ondo legoke aurrez 14. ariketa irakurtzea, bigarren jarduerako 5. ariketatik aurrera horma-irudia egiten hasteko.

Horma-irudian, ikasleek beren gogoetak idatzi beharko dituzte, honako hauei buruzkoak: gizakiok zerk berdintzen gaituen, zertan garen desberdinak, elkarri zer eskaintzen eta ematen diogun, pertsona orok errespetuz hartua izateko duen eskubidea, tratu txarreko jarrerak, pertsonak zaintzeak zer esan nahi duen... Halaber, besteak zaintzeari eta tratu onari buruz hartzen dituzten konpromisoak idatziko dituzte.



Esaterako, honela:

- Zuhaitzaren sustraietan, duintasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea eta pertsonen bestelako eskubideak adieraz ditzakete.
- Enborrean, pertsona guztiok zerk batzen gaituen.
- Adarretan, elkarrengandik zerk desberdintzen gaituen.
- Txoriak elkarri egiten dizkiogun ekarpenak izango dira.
- Landare-zorriak, tratu txarrak.
- Marigorringoak, tratu onak.
- Tximeletak, hobetzeko konpromisoak...


JARDUERAK															
1. jarduera. SARRERA		2. jarduera. ALDI BEREAN BERDINAK ETA DESBERDINAK GARA: DESBERDINTASUNAREN BALIOA					3. jarduera. GEURE BURUA ETA ELKAR ZAINDU NAHI DUGU!!					4. jarduera. ZABALKUNDEA ETA EBALUAZIOA			
ARIKETAK															
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
IPUINA/ANTZEZLANA	IPUINAREN edo antzezlanean LABURPENA eta LEHEN GOGOETAK	AUTORRETRATUAK	IKUSEZINA IKUSTEKO BETAURREKOAK	BATZARRA: «BERDINAK ETA DESBERDINAK GARA»	MARRA GORRIA	EZOHIKO GAIXOTASUNEI BURUZKO HIZKETALDI LABURRA	BATZARRA: DESBERDINTASUNAREN BALIOA: GUZTIOK EGIN DEZAKEGU EKARPENA	DUINTASUNARI BURUZKO HIZKETALDIA	BATZARRA: «BESTE UMEAK ONGI TRATATZEN EZ DITUGUNEAN»	ORRI ZIMURTUA	BATZARRA: «NOLA ZAINDU ETA TRATU ONA EMAN»	LABURPENA ETA KONPROMISOAK	HORMA-IRUDIA: ZUHAITZA	ZABALKUNDEA sentsibilizazioa	EBALUAZIO-BATZARRA
				Arik: 14			Arik: 14	Arik: 14	Arik: 14		Arik: 14	Arik: 14	Arik: 14		

Aurreikusitako SAIOAK					
1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6/7.a

Proposamen didaktiko hau 6/7 saiotan egiteko pentsatua badago ere, komeni da gelan egiten den lana malgutasunez hartzea, landutako gaiekin lotuta ikasleek izan dituzten bizipenei buruzko elkarrizketetan sortzen diren beharrei eta egoerei behar bezala erantzuteko.

Proposamen honen barneko jarduera bakoitzean dago deskribapena, eta bertan azaltzen da jardueraren eta hura osatzen duten ariketen helburu hezitzailea. Ariketa bakoitzean fitxa bat ere badago, eta hau jasotzen da bertan: ariketaren deskribapena, ariketaren helburu didaktiko espezifikoa, erabiliko diren baliabideak, ikasleei egin ahal zaizkien galderak eta **irakaslearen agenda ezkutua**. Agendan, zeina ariketa bakoitzean baitago, ariketa egiteko orduan irakasleak aintzat hartzekoak diren zenbait funtsezko kontu ageri dira, proposamenaren funtsetik ez urruntzeko eta ikasleek kontu baliagarriak ikas ditzaten.

Irakasleak hala nahi badu, «**Familia eta Irakasleentzako Orientazio Kaiera**» kontsultatu dezake, gure ikerketa-taldea sortua eta «**Ana eta Erreinu Ikusezineko betaurrekoak**» (GERNA, 2021) ipuinarekin batera editatua. Honako alderdi hauek lantzen dira kaier horretan:



1. jarduera: SARRERA eta ATAZAREN, JARDUEREN eta ARIKETEN AURKEZPENA

Lehen jarduera honetan, ikasleei desberdintasunaren eta elkarbizitzaren gaia aurkeztuko zaie, bi ariketaren bidez («Ana eta Erreinu Ikusezineko betaurrekoak» (GERNA, 2021) ipuinean oinarrituta eta/edo «Ana Montaña eta Erreinu Ikusezina» antzezlan ikusita); ataza osoa aurkeztuko zaie, baita proposamen didaktikoa osatzen duten jarduerak eta ariketak ere.

Jarduera honen helburu didaktikoa da ikasleak gogoeta egiten hastea pertsonak hobeto ezagutzearen garrantziaz, aurreiritziak eta bazterketa albo batera uzteko eta berdinen arteko elkarbizitza hobetzeko. Bi ariketak eta irakasleak egin beharreko aurkezpen batek osatzen dute jarduera. Aurkezpenean, gero zer ataza egin beharko duten azalduko zaie ikasleei.

1. ariketa. Ipuina irakurtzea edo antzezlan ikustea.

Ana eta Erreinu Ikusezineko betaurrekoak ipuina irakurtzea eta/edo *Ana Montaña eta Erreinu Ikusezina* haurrentzako antzezlan ikustea.

2. ariketa. Ipuinaren/antzezanaren laburpena eta hari buruzko gogoetak.

Ipuinak/antzezanak kontatzen duen desberdintasunari eta elkarbizitzari buruzko istorioaren laburpena eta istorioari eta bertan lantzen diren gaiari buruzko «lehen gogoetak» egitea.

1. ariketa

«ANA ETA ERREINU IKUSEZINEKO BETAURREKOAK» ipuina eta/edo
«ANA MONTAÑA ETA ERREINU IKUSEZINA» haurrentzako antzezlan

DESKRIBAPENA

«Ana eta Erreinu Ikusezineko betaurrekoak» (GERNA, 2021) ipuinaren irakurketa eta/edo «Ana Montaña eta Erreinu Ikusezina» Iluna Konpainiaren haurrentzako antzezlan ikustea (zentroko edo udalerriko espazio zabal batean egingo da, eta ikasleak hara joango dira).

(Antzezanaren sinopsia)

Ana Montañak aitarekin eztabaidatu du. Mutiko berri bat heldu da bere ikastetxera. Anak dio Samuel duela izena, eta aurpegi «gogorra» duela, guztien arreta bereganatu duelako eta, egun batzuetan, Samuelek ondo ez dagoela esan eta denak berari laguntzen saiatzen direlako (motxila eramaten diote, atea zabaltzen diote, aldapa bat ere egin nahi diote «surfa egiten» irten dadin eskolatik!). Samuelek zerbait «arraroa» ezkututzen duelako susmoa du Anak, eta ikertzen hasten da... Samuelek hitz egin, eta ezagutzen duenean, ordea, ez zaio mutil «arraroa edo martetarra» denik iruditzen, barre egin eta ongi pasatzeko lagun bat baizik.

HELBURUA

Ipuinaren edo antzezanaren bitartez, ikasleei proposamen didaktiko honetan landuko dituzten gaiak aurkeztea.

BALIABIDEAK

«Ana eta Erreinu Ikusezineko betaurrekoak» ipuina eta «Familia eta Irakasleentzako Orientazio Kaiera», zeinak haurrentzako ipuin hori dakarren. «Ana Montaña eta Erreinu Ikusezina» antzezanaren antzezpena, Iluna Producciones konpainiaren eskutik.

«Ana Montaña eta Erreinu Ikusezina»: <https://www.ilunaproducciones.es/ana-montana-y-el-reino-invisible>. Iluna Producciones: <https://www.ilunaproducciones.es/>

2. ariketa Ipuinaren/antzezlanaren laburpena eta hari buruzko gogoetak	
DESKRIBAPENA	<p>Ikasleek ipuinaren edo antzezlanaren laburpena egingo dute, eta istorio horri buruz eta desberdintasunari eta umeen arteko harremanei buruz helarazten diguten mezuz hausnartuko dute.</p> <p>Lehenik eta behin, irakasleak ikasleei eskatuko die ipuinak edo antzezlanak kontatzen duen istorioa laburtzeko, desberdintasunari eta elkarbizitzari buruzko gertakari garrantzitsuenak eta beraien ustez istorioan agertzen diren gaiak kontuan hartuta. Bateratze-lana egiteko orduan, istorioa ezagutu ondoren ikasleek bizi izan dituzten emozioak eta beren bizitzan izan dituzten antzeko bizipenak azaltzeari emango zaio garrantzia, baita desberdintasunari eta elkarbizitzari buruz adierazi nahi dituzten ideia guztiak azaltzeari ere. Ariketa honetako «Irakaslearen Agenda Ezkutua» (IAE) epigrafean antzezlanari buruzko gogoetarako garrantzitsuak diren beste zenbait kontu ageri dira. Sekuentzia batzuk antzeztea ere proposa daiteke (1. Unai eta Ana ez dira fidatzen Samurekin. 2. Anak eta Samuk elkar ezagutzen dute. 3. Ana eta Samu lagun egiten dira).</p> <p>Horren ondoren, eta IAEn aipatzen diren zenbait kontu aintzat hartuta, ikasleek istorioari buruz eta istorioan agertzen diren gaii buruz hausnar dezaten ahalegina egingo da; hala, ikasleak beraien bizipen eta emozioez jabetuko dira eta hausnartzen hasiko dira esku artean dituzten gaii buruz.</p>
HELBURUA	<p>Ariketa honekin lortu nahi da ikasleak istorio nagusia ulertu eta hari zein bertan lantzen diren gaii buruz gogoeta egiten hastea.</p>
IKASLEEI EGIN AHAL ZAIZKIEN GALDERA BATZUK (Laburpena egiteko orduan)	<p style="text-align: center;"><i>- Zer gertatzen zaie Anari eta Samuri istorioan?</i></p> <p>(Hausnartzeko orduan)</p> <ol style="list-style-type: none">1- <i>Zer pentsatzen dute Anak eta Unai Samuri buruz hura ezagutu aurretik? Zergatik pentsatzen dute hori?</i>2- <i>2- Hasieran Anak eta Unai nola tratatzen dute Samu? Zergatik tratatzen dute horrela?</i>3- <i>Samu ezberdina al da? Baietz erantzuten baduzu, azaldu zertan den ezberdina.</i>4- <i>Ondo iruditzen al zaizue Samuk arreta berezia jasotzea beste umeekin konparatuta? Zergatik iruditzen zaizue ondo edo gaizki?</i>5- <i>Zer esan nahi du Samuri amak beti esaten dion honek: «ezin duzunean elurrarekin jolas egin, esan nahi du igerilekura joan zaitezkeela»?</i>6- <i>Aitak zergatik esaten dio Anari Samurekin luzaroan ez egoteko? Zer iruditzen zaizue hori?</i>7- <i>Zergatik esaten du Samuren amak beste umeentzat bere semea «ikusezina» dela?</i>8- <i>Zertarako balio dute Anaren betaurreko magikoek?</i>9- <i>Zer gertatzen da bukaeran? Anak eta Samuk elkarrekin ondo pasatzen al dute? Zer gertatu da azkenean lagunak izateko?</i>10- <i>Zuri inoiz gertatu al zaizu halakorik, hau da, ume batzuk, zu ezagutu ondoren, zure lagun egin izana?</i>
IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA	<p>Ariketa honen helburua da ikasleek gogoeta egitea desberdintasunari dagozkion zenbait kontu garrantzitsuri buruz (kasu honetan, ezohiko gaixotasun bat duen ume bat), baita tratu onez eta txarrez ere, landutako istorioa abiapuntutzat hartuta. Zehazki, garrantzitsua litzateke hona hau:</p>

- 1- Samuk (ezohiko gaixotasun bat duen umea) dituen beharrei buruz Anak eta Unaik duten informazio falta azpimarratzea, horrek eragiten baitu Samu arrarotzat hartzea, «martetar» gisa, berarengandik urruntzea eta hari buruz gaizki esaka aritzea.
- 2- Denok hainbat gauzatan besteen aldean ezberdinak garelako ideia aurkeztea. Ondoren datozen ariketetan sakonduko dugu horretan.
- 3- Azpimarratzea Samuk jasotzen duen laguntza beharrezkoa dela eskolara joan eta besteek bezala ikasteko aukera izan dezan. Samuk ere, besteek bezala, hezkuntzarako eskubidea baitu. Samuk eskolaren aldetik jasotzen duen tratatu berezi hori beharrezkoa da, ez da berak duen pribilegio bat, hori gabe ezingo bailuke ikasi.
- 4- Antzezlanean agertzen den «ezin duzunean elurrarekin jolas egin, esan nahi du igerilekura joan zaitezkeela» esaldia baliatzea, ezohiko gaixotasunak dituzten haurrek duten indarra bistaratzeko. Indar horretatik taldeak edo gelak asko ikas dezakeela, egin nahi duten zerbait egin ezin dutenean frustraziorik ez sentitzeko. Ezohiko gaixotasunak dituztenek eta beste pertsona batzuek, beren ausardia eta indarraren bidez, erakusten digute beste aukera batzuk bila ditzakegula zailtasun edo oztopo baten aurrean. Bestalde, taldeak ikas dezake, beharbada zerbait egin ezin izan arren, beti bila ditzakegula beste aukera batzuk eta balioa eman diezaioketela egin ahal dugunari eta daukagunari.
- 5- Antzezlanean Anaren aitaren beldurra ere agertzen da, ez duelako bere alaba besteek baztertzerik nahi Samurekin jolasteagatik. Ikasleei lagundu behar genieke ulertzen gurasoak ezagutzen ez duten horren beldur direla zenbaitetan... Baina, agian, ez dakitela ezohiko gaixotasunak dituzten umeak ederrak direla, harreman ona izan dezaketela beste umeekin, haiengandik ikasteko asko dagoela eta zaindu ahal dituztela, aurreko paragrafoan aipatu den gisan. Umeek ikasten badute beste guztiak ere Samu bezain desberdinak direla elkarren artean, eta harengana hurbilduta ikusten badute mutil ona dela, dibertigarria dela... umeek eurek esan ahal diete gurasoei ez kezkatzeko, gelan guztiak laguntzen diotela elkarri.
- 6- Adierazi behar da, halaber, ikusezina besteok ikusten ez dugulako dela ikusezin (dela beldurratik, dela ezjakintasunagatik...). Zenbaitetan, gurpil-aulkia, botoi gastrikoa... besterik ez dugu ikusten, gaixotasunaren atzean dagoen pertsona ikusi beharrean. Anak askoren begientzat ikusezina den hori ikustea lortzen du, lortzen du ikustea Samu mutil eta lagun ona dela, eta ez du Samu gaixorik dagoen pertsona modura soilik ikusten. Bera ikustea lortzen du, ikusezina dena ikustea, berarekin hitz egiten duelako, bera ezagutzean jantzen dituelako «ikusezina ikusteko betaurreko magiko batzuk», eta betaurreko horien laguntzaz gainditzen ditu Samu ezagutu aurretik zeuzkan aurreiritziak eta estereotipoak.
- 7- Ariketaren bukaeran, ikasleei esango diegu egingo ditugun jarduera eta ariketen bidez ikasiko dugula guk ere ikusezina ikusteko betaurreko magiko horien bitartez ikusten. Lehenik, kartoizkoak jantzita (geroagoko ariketa, egokitze jotzen bada), ikusezina ikusteko superbote hori landuz joateko. Geroago, superbote hori ikasi eta geureganatutakoan, betaurrekorik gabe.

Azkenik, antzezlanak ikusi eta gaiei buruz hausnartu ostean, eta desberdintasunaren eta elkarbizitza positiboaren balioa ikasteko, irakasleak proposamen didaktiko honetako ataza, jarduera eta ariketak aurkeztuko dizkie ikasleei.

2. jarduera. «BERDINAK ETA DESBERDINAK GARA ALDI BEREAN: DESBERDINTASUNAREN BALIOA»

Gizakiok berdintzen eta desberdintzen gaituenari eta aniztasunaren balioari buruzko gogoeta.

Bigarren jarduera giza aniztasunari buruz da (pentsatu une batez berdintzen eta desberdintzen gaituzten gauzen gainean), baita aniztasun horrek ematen digun aberastasunari buruz ere. Jardueraren helburu hezitzailea da ikasleek denok batzen gaituen horretaz (giza esentzia), desberdin egiten gaituen horretaz eta aniztasunaren balioaz jabetzea. Honako sei ariketa hauek biltzen ditu:

3. ariketa. «Nire autorretratu: Nolakoa naiz ni?»
Umeek autorretratu bat egingo dute, non adieraziko dituzten beraien gaitasunak, gustuak, afizioak...
4. ariketa. «Ikusezina ikusteko betaurrekoak»
Umeek betaurrekoak batzuk egingo dituzte, eta proposamen osoan zehar erabiliko dituzte ikusi ohi ez duguna ikusteko beharra azpimarratzeko, sarri begientzat ikusezina dirudien hori, alegia maitasuna, azaleratzeko.
5. ariketa. «Berdinak eta desberdinak gara aldi berean» (Batzarra)
Gelako batzarra egingo da (autorretratuetatik abiatuta), eta guztien artean ikusiko dute zerk berdintzen dituen eta zerk desberdintzen (fisikoa, gustuak, interesak, gaitasunak...). Batzar horren ondotik has liteke «IKUSEZINAREN ZUHAITZA, MAITASUNAREN ZUHAITZA» horma-irudia egiten.
6. ariketa. «Marra gorria» (Bizipen-dinamika)
Bizipen-jolas bat da, pertsona guztiok batzen gaituzten alderdiak asko direla gogorarazten diguna.
7. ariketa. Ezohiko gaixotasunei buruzko hizketaldi laburra.
Ezohiko gaixotasunei buruzko hizketaldi labur baten aurkezpena (irakaslearen, GERNako norbaiten edo ezohiko gaixotasunak dituzten ikasleen eskutik).
8. ariketa. «Desberdintasunaren balioa: guztiok dugu ekarpenen bat egiteko» (Batzarra)
Bateratze-lana, elkarri zer gauza positibo eman diezaiokegun.

3. ariketa

«Nire autorretratu: Nolakoa naiz ni?»

DESKRIBAPENA

Gelako ume bakoitzak bakarka beteko du «Nire autorretratu: nolakoa naiz ni?» fitxa.

(2. eranskina). Umeek beren autorretratu egingo dute, hau adierazita:

Izena:

Sexua:

Norekin bizi zara etxean?

Non jaio zinen? Non jaio ziren zure familiako kideak?

Zer gustatzen zaizu? Zer ez zaizu gustatzen?

Zure ustez, nolakoa zara? Zer gaitasun dituzu? Ni naiz...

Zer egiten duzu oso ondo?

Zertan jolastea gustatzen zaizu?

Zer gairi buruz ikastea gustatzen zaizu?

<p>Zure familiarekin zer egitea gustatzen zaizu? Zer behar duzu alai eta pozik egoteko? Zertan uste duzu zarela beste umeen antzekoa? Zertan uste duzu zarela desberdina, beste umeen aldean?</p>
<p>HELBURUA Ariketa honen bidez, ume bakoitzari autokontzientzia garatzen lagunduko zaio, eta itxuraz harago nolakoak diren pentsatuko dute.</p>
<p>Baliabideak Autorretratuaren fitxa (2. eranskina)</p>
<p>IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA . Ariketa honetan, saiatu behar dugu umeek barrura begira dezaten (beraien gaitasunak, gustuak, trebetasunak...), beren itxura fisikoaz gaindi. . Ikasleek adierazitakoarekin, irakasleak gehiago jakingo du umei buruz. . Ume bakoitzak bere indarguneak adieraz ditzan ahaleginduko da irakaslea, beste ume batzuen laguntzarekin, hala behar bada. . Autorretratueta idatzitakoa ondoren datozen ariketetan erabiliko da, ikasleak beren artean ere hobeto ezagut daitezten, eta jakin dezaten zer duten berdinetik, zerk egiten dituen desberdin, elkarri zer ekarpen egiten dioten...</p>

<p>4. ariketa «Ikusezina ikusteko betaurrekoak»</p>
<p>DESKRIBAPENA Ikasleek ikusezina ikusteko betaurrekoak egingo dituzte, Ana Montañaren tutorialaren laguntzaz (3. eranskina). Pertsonak itxura fisikotik haratago ikusteko betaurreko horiek kolorez margotu eta apaindu litezke, borlak, izarrak, beira aleak eta beste itsatsita.</p>
<p>HELBURUA Ariketa honetan ikasleei kontzeptu abstraktu baten (maitasunez begiratu) errepresentazio fisikoa eskainiko zaie, kartulinaz eta zelofanez egindako betaurrekoen bidez, ulertarazteko besteei maitasunez begiratzea beharrezkoa dela beraien itxura fisikoaz haratago ezagutzeko, edo, behintzat, besteek sortzen diguten lehen inpresio horretaz harago.</p>
<p>Baliabideak Ikusezina ikusteko betaurrekoak egiteko Ana Montañaren tutoriala, kartulina, koloretako zelofana, guraizeak, kola, errotuladoreak, beira aleak, borlak... (3. eranskina).</p>
<p>IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA . Metafora gisa esaten dugu «ikusezina ikusteko betaurrekoak» direla, ondorengo ariketak egiterakoan jarritakoan, begiekin bakarrik ikusten ez den hori ikusteko balioko dietelako, pertsonak beren gaitasun, indargune, jakintza eta bestelakoen arabera ezagutzen baitira. Pertsonen barrualdera begiratu beharra dago, eta ez soilik itxura fisikoari, gurpil-aulkiari, etab. Hots, betaurreko magikoak dira, eta lagunak osotasunez ikusten laguntzen dute, haien alderdi guztiei erreparatzen. . Betaurrekoek ikusmen-arazoak dituztenei laguntzen dieten gisan, besteok ere askotan ez ditugu gure ingurukoak ongi eta osotasunez ikusten. Beharrezkoa izango da, beraz, ahalegina egin eta «Ikusezinerako betaurrekoak» janztea (fisikoki, lehenik eta «figuratiboki», ondoren), kristalak garbitu eta maitasunez begiratzeko, hobeto ezagutzeko. . Ariketa hasteko modu egokia litzateke irakasleak sarreratxo hau egitea: «Pertsonok, besteei begiratzean, ikusten al dugu barruan zer duten? Ba al dakigu nolakoak diren? Jakingo al genuke esaten, bakoitzaren autorretratu irakurri gabe, zer idatzi duen? Ipuinaren/antzezlanaren istorioan, Anak bere aitari azaltzen dio badagoela Samuel ondo ikusten ez duenik, soilik haren gaixotasuna eta makuluak edo gurpil-aulkia ikusten dituelako, eta berak, aldiz, ondo ikusteko betaurreko berezi batzuk dituela... Egingo al ditugu guk ere betaurreko magiko batzuk gure kideei ondo begiratzeko?»</p>

5. ariketa

«Berdinak eta desberdinak gara aldi berean» (Batzarra)

DESKRIBAPENA

Ariketa honetan batzar bat egingo da, eta bi zati ditu. Lehenengoan, ume guztiek jantziko dituzte betaurrekoak, eta gogoraziko zaie betaurreko horiek beren kideak «barrutik» (haien gaitasunak, gustuak, etab.) ikusteko balio dutela, eta horrek kideak hobeto ezagutzen eta beren arteko berdintasunak eta desberdintasunak ikusten lagunduko diela. Borobilean jarrita, kartoizko kaxa handi batean jarriko dira autorretratu guztiak. Ume bakoitzak bat hartuko du, begiratu gabe, eta ozenki irakurriko ditu hartu duen autorretratu egin duen umearen izena eta idatzita dauden gauzen artean ume hori eta bera berdintzen dituen zerbait. Ez badago ezer komunik -ez da ohikoa-, ozenki esango du autorretratu horretan adierazitako zerbait, ikusteko beste gelakideren batek ezaugarri hori baduen. Hala lortuko dugu bateratze-lana egitea, eta horren bidez azpimarratzea pertsonak zertan garen berdinak. Batzarra bukatzeko, irakasleak «ikasleei egin ahal zaizkien zenbait galdera» epigrafeko zenbait galdera egin ditzake.

Ariketaren bigarren zatian ere ikasleek betaurrekoak jantzita edukiko dituzte, eta lehen zatian egindako gauza bera errepikatuko dute, baina oraingoan desberdintasunetan jarriko dute arreta.

Ume guztiak borobilean jarriko dira, betaurrekoak jantzita dauzkatela, eta kartoizko kaxan egongo dira autorretratuen fitxak. Ume bakoitzak fitxa bat hartuko du berriro, begiratu gabe, eta ozenki irakurriko du fitxa horretan dagoen zerbait, hori idatzi duen umearengandik desberdintzen duena. Denean berdinak badira -ez da ohikoa izango- fitxan idatzitakotik zerbait esango du, ikusteko gelakideren batek ezaugarri hori ez duen, hots, ikusteko ea gelakideren bat alderdi horretan desberdina den.

Hala lortuko dugu bateratze-lana egitea eta horren bidez azpimarratzea zertan desberdintzen diren eskolako ume batzuk. Modu berean, batzarra buka liteke aipatutako epigrafeko zenbait galdera eginez ikasleei.

Aurrez esan den bezala, batzarra edo bateratze-lana egin ondoren hasi ahalko dira ikasleak «Ikusezinenaren zuhaitza, maitasunaren zuhaitza» (14. ariketa) horma-irudia egiten, eta proposamenean egongo diren hurrengo batzarretatik sortutako gogoetekin eta ikasitakoarekin bete ahalko dute; oraingoan, zuhaitzean (enborrean eta adarretan) adieraziko dute pertsonak zertan garen berdinak eta zertan desberdinak.

HELBURUA

Ariketa honetan helburua da ikasleek beraien kideen barrura begiratzea (gaitasunak, lehenetasunak...), ezaugarri fisikoez harago, elkar hobeto ezagutzeko eta ikusten hasteko pertsonak elkarrengandik desberdintzen gaituzten alderdiak egon arren (familiak, jatorriko herrialdea, kultura, etab.), elkarren antz handia dugula emozionalki (guztioi gustatzen zaigu tratua ona jasotzea...) eta gustu eta zaletasun eta beste antzekoak ditugula.

Baliabideak

Betaurreko magikoak, autorretratuen fitxak eta kartoizko kaxa handi bat.

IKASLEEI EGIN AHAL ZAIZKIEN GALDERAK (BATZARREAN)

(Ariketaren lehen zatia)

. Nortzuek idatzi dituzte gauza berdinak edo antzekoak autorretratuen fitxetan? (Ume horiek antza dute zerbaitetan, gustu berdinak dituzte edo gauza berdinak ez dituzte gustuko, gauza berak kezkatzen ditu, behar berdinak dituzte...)

. Zer sentitzen dut beste norbaitek nire gustu, kezka eta behar berberak dituela jakinda?

. Begi hutsez dirudien baino antz handiagoa dugu elkarren artean, ezta?

(Ariketaren bigarren zatia)

. *Nork idatzi ditu gauza ezberdinak bere autorretratuan?*

- . Zertan zarete desberdinak zuetako batzuk? (Ume horien arteko desberdintasunak beraien gustuetan, kezketan eta, besteak beste, beharretan ageri dira)
- . Gelako lagunak gauza guztietan zuekin al zarete berdinak? Ala desberdintasunak ere badituzue? Eta, orduan, izan al gaitzke gu bezalakoak ez direnen lagun?

IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA

- . Gelakideak berdintzen dituen horri buruzko bateratze-lana ikusita, esan liteke emozio berdinak ditugula (poza, tristura, haserrea, beldurra) eta, batzuetan, egoera berdinetan emozio berdinak sentitzen ditugula. Horrez gain, gure gorputzak barrutik berdinak direla eta gutxi gorabehera antzera funtzionatzen dutela (nesken eta mutilen organo genitalak eta funtzionamendu hormonalak salbu, eta organoren bat falta duten pertsonen edo bere lana ongi egiten ez duen organoren bat daukateneen kasuak salbu).
- . Ariketaren lehen zatian ahalegina egin beharko litzateke azpimarratzeko ume batzuek zer gauza komun dituzten, zertan diren elkarren berdinak. Ez dira berdinak alderdi guztietan, baina bai zenbait alderdi garrantzitsutan, eta seguru gehiago direla berdintzen dituzten gauzak elkarrengandik bereizten dituztenak baino. Eta, beraz, elkarren antza dugunez, «inor ez da martetarra».
- . Berriz azpimarratuko da zenbait kontutan desberdinak garen arren gehiago direla berdintzen gaituzten alderdi garrantzitsuak (esaterako, odol-talde bera dutenek elkarri odola eman ahal diote, etnia berekoak izan zein ez, azal/ile/begi... kolore bera izan zein ez, eta berdin egin daiteke organoen transplantearekin), eta berriz azpimarratuko dugu inor ez dela «martetarra».
- . Irakasleak adierazi behar du berdinak garela (zenbait gauzatan) eta aldi berean desberdinak garela (beste zenbaitetan), denek ez baitute gauza bera idatzi autorretratuaren fitxako laukitxo guztietan.
- . Elkar asko maite eta elkarren oso lagunak diren arren, nahiz eta zenbait kontutan elkarren antza izan, gauza desberdinak egitea gustatzen zaien lagunak ere badaudela ere erakusten du horrek, edo batzuei gauza batzuk egitea gehiago kostatzen zaiela beste batzuei baino;hots, elkarren arteko desberdintasuna ez dela oztopo bat norbaitekin harreman ona izan eta lagun bihurtzeko. Gure aldean desberdinak direnen lagun izan gaitzke. Ziurrenik, beste ume batzuen gaitasun, nahi eta gustuak ezagutzuz gero, lagun berriak egin ahalko ditugu.

6. ariketa

«Marra gorria» (Bizipen-dinamika)

DESKRIBAPENA

Zinta itsaskorarekin (gorria, ahal bada) marra bat egingo dugu gelako zoruan, horma batetik pareko hormara, eta gela bitan banatuta geratuko da.

Ikasleak, betaurreko magikoak jantzita, marratik metro batera jarriko dira, marraren alde banatan. Irakasleak galderak egingo dizkie; esaterako, ea gauza jakin batzuk gustuko dituzten, egoera jakin batek beraiengan emozio jakin bat sortzen duen, etab. (4. *eranskina*). Irakasleak esandakoarekin bat datozen ikasleak marra gorriaren gainean jarriko dira, hura zapaltzen.

Zenbait minutuz egongo dira dinamika bera egiten; ondoren, ikasleei galdetuko zaie jolasak zer pentsarazi dien.

Eskola bukatzeko, txalo-zaparrada alai bat egingo dugu elkar batzen gaituen horren guztiaren omenez.

HELBURUA

Bizipen-dinamika honen helburua da ikasleek beste umeekin berdinetik duten guztiaz jabetzen jarraitzea.

Baliabideak

Betaurreko magikoak eta zinta itsaskor gorria.

IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA

Irakasleak ikasle guztiek marra gorria batera «zapaltzeko» moduko galderaren bat sartuko du.

7. ariketa

Ezohiko gaixotasunei buruzko hizketaldi laburra

DESKRIBAPENA

Ezohiko gaixotasunei (gaixotasun arraroak ere esaten zaie) eta gaixotasun horiek dauzkaten pertsonen bizitzari buruzko aurkezpen labur bat egingo zaie ikasleei.

Irakasleak egin dezake aurkezpen hori, baina baita elkarteren bateko (GERNA, etab.) norbaitek edo, nahi badu, ezohiko gaixotasun bat duen ikasleren batek edo haien familiek.

Laguntza gisa, bideo labur bat ere erabil liteke.

HELBURUA

Ezohiko gaixotasunei dagozkien zenbait konturi buruz ikasleek duten informazioa sendotzea, halako gaixotasunen bat duten umeei bizi dituzten egoera batzuk hobeto ulertzen laguntzeko, baita haien emozioak, indarguneak eta beste ere.

Baliabideak:

. Zer dira gaixotasun arraroak?: <https://zientzia.eus/artikuluak/gaixotasun-arraroak/>

. Datos sobre enfermedades raras en la web de FEDER (Federación Española de Enfermedades Raras): <https://enfermedades-raras.org>



Bideoak:

. "Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna 2013" (1'45") <https://www.youtube.com/watch?v=KW-x80TpS60>

. «Día Mundial de las enfermedades raras 2018» (2') <https://www.youtube.com/watch?v=Ej-x6uth5Po>

. «Día Mundial de las enfermedades raras 2015» (2') <https://www.youtube.com/watch?v=Ej-x6uth5Po>

. «Día Mundial de las enfermedades raras 2012» (1') <https://www.youtube.com/watch?v=Ej-x6uth5Po>

EZOHIKO GAIXOTASUNEI/GAIXOTASUN ARRAROEI BURUZKO EDUKI, GALDERA ETA JARDUKETA POSIBLEAK:

- Zer diren Ezohiko Gaixotasunak edo Gaixotasun Arraroak (EG/GA)... Ezohiko gaixotasun mota asko daude... Ezohiko gaixotasun bakoitza pertsona gutxi dute, baina pertsona askok dituzte ezohiko gaixotasunak: 2.000 lagunetik batek (3 milioi lagun inguru Espainian), eta bostetik batek min kronikoa du... EGak ez dira kutsakorrak...
- Zer-nolako beharrak dituzten EGak dituzten umeei: zer arreta mediko behar dituzten (zenbait

kasutan, zazpi mediku espezialista ere izan ditzakete...); zer familia-arreta behar duten (familiako aurrekontuaren % 20 gaixoaren zaintzara bideratzen da, eta familiako kide batek bere laneguna murriztu behar izaten du EGa duena zaintzeko); zer arreta behar duten eskolan, hezkuntzarako duten eskubidea bete dadin (zaintzailea, ospitalera joateko eskolatik irtetea, gurpil-aulkia...).

- Zer emozio, desio eta indargune dituzten. Beste umeei gustatzen zaizkien gauza asko gustatzen zaizkie beraiei ere; denak beraiei begira egoteak lotsatu egiten ditu (beste guztiok bezala). Ez dute gustuko besteek beraien ahalmenetan ez sinestea, ezta besteek beraiek dituzten zailtasunei garrantzi gehiegi ematea ere. Ez zaie gustatzen beraiek egin ditzaketen gauzak besteek egitea. Ezta besteek beren gurpil-aulkia... soilik ikustea eta beraien sentimenduetan arretarik ez jartzea. Ez dute gustuko baztertuak izatea, ezta jazarpena jasatea ere. Bakarrik egotea edo pena ematea ere ez dute gustuko. Nahigabetu egiten dira batzuek ulertzen ez dutenean lehen egin zitzaizkien gauzak, zenbaitetan, orain ezin dituztela egin. Indargune asko dute, baikorrak dira eta hobetzeko grina dute. «Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna 2018» bideoa proiektu daiteke EGei buruzko hizketaldiaren aurretik, eta bertan agertzen diren zenbait hitz ikasleekin komentatu, baliteke-eta zenbait hitz ez ulertzea. Galdera hauek egin dakieke ikasleei bideoa ikusi ondoren: *Ba al dago gelan gaixotasunen bat duen inor? Jende askok dauka gaixotasun hori? Ba al du sendabiderik? ...*

IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA

. Taldeak edo gelako kideek EGa duen umearen, edo «berezia» den beste umeren baten, beharrak, emozioak, desirak eta indarguneak hobeto ezagut ditzaten lan egingo du irakasleak, ongi harilkatuz antzezlan eta Samuren pertsonaia. («EGei buruzko eduki posibleak» epigrafean adierazita daude azpimarratu behar diren zenbait kontu garrantzitsu).

. Ikaskideek, EGa duen umearen ibilbidearen berri jakiteaz gain, ulertu ahalko dute EGa duen umeak eskolan ahal duena egiten duela, gauzak egiteko bere modua duela (beste guztiok bezala) eta, batzuetan, gauza batzuk egin ditzakeela eta beste batzuetan ez (beste guztiok bezala), ez duela iruzur egiten, zenbaitetan minak ez diola uzten lanean jarraitzen... Ez dela EGa duen umeak jasotzen duen tratuagatik inbidiarik izan behar, hezkuntzarako duen eskubidea bete dadin ematen baitzaio tratu hori. Haren lekuan jartzen jakin behar dela, harengandik ikas ditzakegun gaitasunak badituela, etab. (Gelako beste ume batzuek dituzten gaitasunei eta indarguneei buruz ere hitz egin daiteke tarte horretan). Hau da, umeek ulertu behar dute desberdintasuna aberastasuna dela, eta ez dela arazo bat.

8. ariketa

«Aniztasuna aberastasuna da» (Batzarra)

DESKRIBAPENA

Irakasleak ume bakoitzari bere autorretratua emango dio (3. ariketa). Gelakide guztiak borobilean jarriko dira, betaurreko magikoak jantzita, eta bakoitzak bere gaitasunak eta egiten dakiena irakurriko du (autorretratuan idatzita dagoena).

Horrela, bateratze-lana eginez, azpimarratuko dira ikasleek, gelan dagoen aniztasunari esker eta bakoitzak bere indarguneetatik abiatuta, gelari eta gelako lanari egin ahal dizkioten ekarpenak, eta dibertsitatearen aberastasunaz hausnartuko dute.

Azkenik, ikasle bakoitzak gelakideei eskertuko die egunerokotasunean haiengandik jasotzen duena, zeina lagungarri baita pertsona hobea izateko eta elkarbizitza hobetzeko.

Aurrez adierazi den gisan, batzarra eta bateratze-lana egin ondoren, «Ikusezinararen zuhaitza, maitasunaren zuhaitza» (14. ariketa) horma-irudia betetzen jarraitu ahalko dute ikasleek; oraingoan desberdintasunetik abiatuta elkarri zer ekarpen egiten diogun adieraziko dute zuhaitzean (txorietan).

<p>HELBURUA</p> <p>Desberdintasunaren aberastasunari esker besteei ekarpen positiboak (gure indarguneak, gure jakintza) denok egin ahal dizkiegula ikusaraztea, ikasleek begirada zabaldu eta ikaskideei begiratzeko modu osoago eta positiboagoa izan dezaten.</p>
<p>Baliabideak</p> <p>Betaurreko magikoak eta autorretratuen fitxak.</p>
<p>IKASLEEI EGIN AHAL ZAIZKIEN GALDERA BATZUK</p> <p><i>Jarri arreta zure indarguneetan eta egiten dakizun horretan, eta esan: Zuregandik zer gauza baliotsu eskain diezaiekezu ikaskideei?</i></p> <p><i>Ikaskide batek guk ez dugun gaitasun positibo bat badu, bere bizitzeko moduari erreparatuz ikas dezakegu. Zer gaitasun ikas ditzakegu gure ikaskideengandik?</i></p> <p><i>Egiten ez dakizuen zerbait badago, eta gelako norbaitek egiten badaki, harengandik ikas dezakezue? Zuen ikaskideek erakutsiko dizueten zer ikas dezakezue egiten?</i></p> <p><i>Orduan, zuen ikaskideen desberdintasunak aberastu egiten al zaituzte?</i></p> <p><i>Pertsona guztiengandik ikasi al dezakegu zerbait ona?</i></p>
<p>IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA</p> <p>. Ariketa honek gelakide guztien inguruan begirada osoago eta positiboagoa izaten lagunduko die ikasleei: egon liteke ume gor edo diabetikoren bat... baina haur hori eskuzabala eta dibertigarria ere izan daitekeela ikusiko dute.</p> <p>. Funtsezkoa da ume guztiek adieraztea badutela baliotsua den zerbait gelakideei eskaintzeko. Beraiek ikusten ez badute, irakasleak beste ikasleei galdetu ahal die edo, bestela, berak ikusten dituen umearen alderdi onak esan. Ariketa honetan ume bat bera ere ez litzateke ikusezina izan beharko.</p> <p>. Irakasleak EGa duen umearen indarguneak azpimarratuko ditu. Esaterako, azpimarra dezake egunerokotasuneko erronkei ausardiaz eta baikortasunez aurre egiteko duen indarra, egin ezin dezakeenaz une oro kexatu gabe eta egin dezakeenaz gozatuz aldi berean («elurrik ez badago... segi igerilekura»; horri buruz hurrengo ariketan sakonduko da).</p> <p>. Irakasleak azpimarratuko du ume bat eskolan apur bat astuna izaten den aldiak ere gure pazientzia lantzeko erronka eskaini ahal digula.</p> <p>. Azkenik, irakasleak adieraz dezake zorte handia dela dibertsitate funtzionala duen norbaitekin bizitzea (indarguneak eta zailtasunak dituztenak) eta haien lagun izatea, horrek pertsona gisa hobetzen laguntzen digulako eta harremanak denetariko pertsonekin izateaz gozatu ahal dugulako. Modu berean, irakasleak adieraz dezake zeinen garrantzitsua den besteei eskertzea egiten dizkiguten ekarpenengatik. Antzezlanaren kasuan, Anak Samuri eskertu egiten dio bere adiskidetasunari esker ikusezina ikusteko gai delako, hots, bera benetan nolakoa den ikusi ahal duelako, hau da, Unai eta berak hasieran pentsatzen zutenaren aldean, oso desberdina den norbait.</p>

3. jarduera. GEURE BURUA ETA ELKAR ZAINDU NAHI DUGU!!

Duintasunerako eskubidea zer den eta berarekin zer dakarren jakitea, tratu txarrez eta sortzen duten minaz jabetu eta hari buruz hausnartzea, eta berdinen artean zaindu eta elkar ongi tratatzeko konpromisoa hartzea.

Honako hauek dira hirugarren jardueraren hezkuntza helburuak:

- Batetik, giza duintasunaz jabetzea, gizaki guztiok estimatuak izateko eta errespetuzko tratua jasotzeko dugun eskubidea den neurrian; bestetik, bakoitzak bere arduraren hartzea beste pertsona guztiei errespetuzko tratua emateko; gainera, gure zoriontasunean eta giza harreman osasungarrietan maitasunak eta zaintzak duten garrantzia azpimarratzea.
- Besteekiko tratu txarrak eta onak identifikatzen ikastea eta, tratu txarrek eragiten duten minaz jabetzeaz gain, besteak zaintzen ikastea guztion duintasunerako eskubidea betetzea posible izan dadin.
- Azkenik, «Desberdintasuna eta Elkarbizitza» gaiari buruz ikasitakoa laburbildu eta zenbait konpromiso zehaztea, berdinen artean zaindu daitezkeen eta elkarri tratu ona eman diezaiozten, desberdintasunean elkarbizitza osasungarri bat eraikitzeko.

Hirugarren jarduerak bost ariketa ditu (hizketaldi bat, «orri zimurtua» dinamika eta hiru batzar) eta guztien helburua da giza duintasunari zor zaien errespetuari buruz hausnartzea, baita beste pertsonen ematen zaien tratu on eta txarrei buruz ere.

9. ariketa. Duintasunerako eskubideari (eta beste giza eskubide batzuei) buruzko hizketaldi laburra.
Gure bizitzaren oinarrian dauden giza eskubideen aurkezpena egingo da (bizitzeko eskubidea, duintasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, etab.), eta duintasunerako eskubidearen garrantzia azpimarratuko da, batez ere.
10. ariketa. «Noiz ez ditugu ongi tratatzen beste umeak?» (Batzarra)
Tratu txar motak ikusarazteko bateratze-lana.
11. ariketa. «ORRI ZIMURTUA»
Tratu txarrak jasateak sortzen duen mina azaleratzeko dinamika.
12. ariketa. «Nola zaindu eta tratatu ditzakegu ongi beste umeak?» (Batzarra)
Elkar ongi nola tratatu eta nola zaindu ikusarazteko bateratze-lana.
13. ariketa. Laburpena eta Konpromisoak (Batzarra)
Ikasitakoaren laburpena, eta ikasleek desberdintasunean elkarbizitza osasungarria bultzatzeko hartu dituzten konpromisoen bateratze-lana.

9. ariketa Duintasunerako eskubideari (eta beste giza eskubide batzuei) buruzko hizketaldi laburra

DESKRIBAPENA

Funtsezko giza eskubideei buruzko hizketaldi labur bat aurkeztuko du irakasleak (bizitzeko eskubidea, duintasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea, osasunerako eskubidea, etab.). Ikasleek beren koadernoan jasoko dituzte hizketaldian aipatzen diren giza eskubideak eta, gero, eskubide horiek gizakion oinarritzko beharrekin lotuko dituzte.

Hizketaldi laburraren ondoren, «Ikusezinaren zuhaitza, maitasunaren zuhaitza» (14. ariketa) horma-irudia betetzen jarraitu ahalko dute; oraingoan, duintasunerako eskubidea idatziko dute (zuhaitzaren sustraietan).
HELBURUA Giza eskubideak ezagutzea, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasota dagoen duintasunerako eskubidea, bereziki.
Baliabideak . Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (NBE, 1948). . Ikasleen koadernoak eta arkatzak.
IKASLEEI EGIN AHAL ZAIZKIEN GALDERAK . Zer behar dugu gizaki guztiok ondo bizitzeko? Ba al dago falta ezin zaigun zerbait? . Pertsona guztiok al dituzte, beraz, eskubide berberak? . Behar berberak al ditugu gizaki guztiok, eskubide horiek izateko? . Nortzuek bete behar dituzte giza eskubideak eta beharrak? . Guztiok al daukagu erantzukizunen bat gure eskubideak eta besteen eskubideak urratu ez daitezen?
IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA . Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren (NBE, 1948) 1. artikulua honako hau dio: <i>Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.</i> . Proposamen didaktikoan lantzen den gaia kontuan hartuta, komenigarria litzateke batez ere GIZAKI GUZTION DUINTASUNERAKO ESKUBIDEAN sakontzea; hots, gu geu izateko eta pertsona izateagatik bakarrik baloratuak eta errespetatuak izateko eskubidean, pertsonen bestelako eskubideak ere aipatu arren. . Komeniko litzateke azaltzea duintasuna dagoela beste giza eskubide guztien oinarrian, eta umiliazioa, diskriminazioa eta bidegabekeriak giza duintasuna urratzen dutela. Horrez gain, gure harreman sozialetan besteak errespetuz hartzeko erantzukizuna daukagu guztiok (haiekin senidetasunez jokatzekoa, Giza Eskubideen Aldarrikapenean jasota dagoen gisan), baita geure burua babestu eta zaintzekoa ere. . Bizitzeko premiei buruz hitz egiterakoan, umeei lagundu behar zaie behar faltsu edo luxuetatik bereizten, eta adierazi bizi-premia garrantzitsu bakoitzerako oinarritzko eskubide bat ezarri zela.

10. ariketa

“Noiz ez ditugu ongi tratatzen beste umeak?” (Batzarra)

DESKRIBAPENA

Gelakide guztiak borobilean eseriko dira, eta betaurreko magikoak jantziko dituzte. Prest daudenean, «Marra gorria» (6) ariketan umeek adierazitakoa kontuan hartu, eta harremanetan, emozio desatseginak eragiten dizkietelako, gustukoak ez dituzten moduak gogoraraziko dizkie irakasleak. Bateratze-lana egingo da, eta ikasleek adieraziko dute beraien ustez noiz ematen zaion tratatu txarra beste pertsona bati.

Horren ondoren, irakasleak bakoitzari tratatu txarrei buruzko fitxaren lehen zatia emango dio (5. eranskinean ere badago) eta ikasleek erantzun egingo dute, eta talde handian hitz egin eta guztien artean adostuko dute zeintzuk diren norbait tratatu txarra jasotzen ari dela esateko moduko jokabideak (irakasleak fitxa horren erantzunak 5. eranskinaren bigarren zatian ditu). Bateratze-lana bukatzen dutenean, ariketan aurrerago ageri diren zenbait galderari buruz gogoeta egin dezakete ikasleek.

Jokabidea	Ez da tratu txarra	Tratu txar fisikoa	Hitzezko tratu txarra	Gizarte-bazterkeria
Norbait jotzea				
Beti arrazoia eduki nahi izatea				
Norbait iraintzea				
Norbaiti gaizki hitz egitea				
Norbaiti gauzak ezkutatzea				
Norbaiti burla eta barre egitea				
Norbaiti ezizenak jartzea				
Norbaiti taldeko ekintzetan parte hartzen ez uztea				
Norbaiti ez ikusiarena egitea				
Inoiz barkamenik ez eskatzea				
Norbait zerbait egitera behartzea mehatxu bidez				
Norbaiti buruzko gezurrak esatea, lagunik eduki ez dezan				
Norbait beldurtzea				

Moldatutako taula; originala: COLLEL, Jordi eta ESCUDE, Carme (2007, 13-14)*.

Antzeztanaren gida didaktikoa: PostData, Madril: Fundacion Autor.

(* Fitxa honetan ez da tratu txar psikologikoa ageri, tratu txar mota guztietan dagoelako tratu txar psikologikoa).

- . Laburpen gisa, irakasleak ikasleei erakutsi ahal die ikasleek beraiek «Tratu txarra zer den jakin» fitxan emandako erantzunen laburpena.
- . Aurrez adierazi den gisan, batzarra eta bateratze-lana egin ondoren, «Ikusezinenaren zuhaitza, maitasunaren zuhaitza» (14. ariketa) horma-irudia betetzen jarraitu ahalko dute ikasleek; oraingoan, pertsonen min egiten dieten tratu txarrak edo indarkeria-ekintzak adieraziko dituzte (landare-zorri gisa).

HELBURUA

Ariketa honen bidez ikasleek tratu txarrak identifikatzen ikastea da helburua, lehen urrats gisa, gero gelditu, aurre egin eta saihestu ditzaten. Gainera (Marra Gorria 8. ariketan bititakoari erreferentzia eginda), argi utzi beharko da geure larruan bizi ditugunean denok jabetzen garela tratu txarrez eta zerk mintzen eta sufriarazten digun. Ideia horiek besteekin partekatzerakoan, umeei norbaiti tratu txarra ematearen pertzepzio erreala goa osatuko dute, eta, hala, besteekin elkarbizitza sano eta errespetuzkoa izateko orduan, ikuspuntu kritikoagoa izango dute alboratu beharreko jokabide horien gainean.

Baliabideak

Ikusezina ikusteko betaurrekoak, tratu txarren fitxa (5. eranskinean) eta arkatzak.

IKASLEEI EGITEKO GALDERAK

- . Zer sentitzen duzu gaizki tratatzen zaituztenean?
- . Gelako norbait gaizki tratatzen duzunean, zer sentitzen du lagun horrek?
- . Batzuetan zergatik erasotzen diegu beste pertsona batzuei? Zer gertatzen zaigu halakoetan (zer pentsatzen dugu, zerk ematen digu mina)? Zer behar dugu une horretan?
- . Zer egin behar dugu haserre edo triste gaudenetan gelakideei minik ez emateko?
- . Guri egitea nahi ez dugunik ez genioke inori egin behar?
- . Heldu bati zerbait egiteko esaten badiogu, ume bat tratu txarrak jasotzen ari delako, salatariak ala ausartak gara?

IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA

- . Norbait gaizki tratatzea dakarren edozein jokabidek urratzen du pertsonen duintasunerako eskubidea, baloratuak eta errespetatuak izatekoa. Indarkeriazko jokabidea izango da, eta, beraz, salatu eta eragotzi beharrekoa. Are gehiago eskolan, eskolara joaten diren umeentzat eskola babesgunea izan behar baita.
- . Tratu txarrak normalizatu dituzten gizarteetan bizi gara, eta tolerantziaren atalasearen maila altua da. Ariketa honen helburua da ikasleek berdinen arteko tratu txarrak identifikatzen ikastea edozein eraso motatan, eta errespetuzkoa ez den pertsonen elkarbizitza normaltzat ez jotzea.
- . Berdinen arteko tratu txarrak noizbehinkakoak eta bat-batekoak edo errotuak, eta, beraz, bereziki larriak izan daitezke. Azken egoera horretan, *bullying*az hitz egingo genuke, baldi eta mina eragiteko intentzioa balego, biktima aukeratzeko bada, jokabide erasokorra errepikakorra bada eta menderatze-harreman bat sortzen bada, hots, nahitasuna, jarraitutasuna eta larderia badaude (OLWEUSen arabera).
- . Garrantzitsua da ikasleei hausnartzen laguntzea zer gertatzen zaien inori eraso egin edo tratu txarra ematen diotenean (Zergatik egiten dute? Zer behar dute?)
- . Eguneroko bizitzan norbaitek mintzen baditu, beharrezkoa da gogoraraztea pazientziaz jokatu behar dela eta egokiena harekin hitz egitea dela indarkeriazkoa ez den modu batean, zerk eta zergatik mintzen gaituen esan, eta halakorik ez egiteko eskatzea. Horretarako, berehala «EZ» esaten irakatsi beharko litzaieke zerbait nahi ez duten edo zerbait gustuko ez duten aldietan, eta norbaiti erasokorra ez den modu batean eskatzen ere ez mintzeko.
- . Azpimarratu beharko litzaieke norbaitek tratu txarrak jasotzen dituztenean modu lasai eta baketsuan defenditu behar dela pertsona hori. Begoña Ibarrolaren «Ausarten kluba» ipuineko (SM) Alan izeneko pertsonaiari buruz hitz egin ahal zaie eta Yogurinha Borovaren Ausarten Kluba” kanta erabili daiteke : <https://www.youtube.com/watch?v=bpbDKMXixQA> . Baita Langiren “Se buscan valientes” kanta ere bai.
- . Aipatu beharko litzaieke, halaber, tratu txarrei ezin badiete bakarrik aurre egin, beharrezkoa dela pertsona nagusiren bati azaltzea, hark esku har dezan eta eraso jasotzen duenari lagun diezaion. Eta hori ez dela salataria izatea, ausarta izatea baizik.



11. ariketa

«Orri zimurtua» (Bizipen-dinamika)

DESKRIBAPENA

Ikasleek ikusezina ikusteko betaurrekoak jantziko dituzte berriro.

Ikasleei eskatuko zaie, ikusezina ikusteko betaurrekoak jantzita, orri bat zimurtzeko, pilota bat eginez, indarrez...

Eta gero eskatuko diegu papera berriz lisa dezatela, zimurrik gabe uzten ahalegindu daitezela.

Ikasleak konturatuko dira ezinezkoa dela orria hasierako egoerara bueltatzea, eta hari horri tiraka hausnartuko dugu tratu txarrek eragiten duten minaz.

HELBURUA

Bizipen-dinamika horretan ikasleei lagunduko diegu ikusten tratu txarrek pertsonengan uzten dituzten markak, eta konturatzen tratu txarrek eragiten duten minaz, denboran iraun egiten baitu, eta zenbait pertsonarentzat ezabaezina baita. Modu horretan ahalegina egiten da ikasleek beraien enpatiarako gaitasuna hobetu dezaten, batetik, tratu txarrei dagokienez eta, bestetik, pertsonen nahiari dagokienez, hainbesteko mina eragin dezaketen tratu txarreko egoerarik ez bizitzeko.

Baliabideak

Paper-orriak.

IKASLEEI EGITEKO GALDERAK

- . Zer desberdintasun dago zimurtu aurreko eta zimurtu ondorengo paperaren artean?
- . Hasierako egoerara bueltatzeko, berriz lisatu al daiteke behin zimurtutako orria?
- . Zergatik? Zer gertatzen da?
- . Antzeko zerbait gertatzen al zaigu norbaitek gaizki tratatzen gaituenean? Bihotza zauritu, apurtu egiten zaizu? Zer marka uzten dizu tratu txar horrek bihotzean? Zenbat denboraz izaten duzu mina, tristura, beldurra...?
- . Eta zuk beste norbait gaizki tratatzen duzunean, zuri gertatzen zaizuna gertatzen al zaio, bihotza txikitu eta zimurtu egiten zaio?
- . Norbaiti min egin diozula jabetzen zarenean, ongi sentitzen al zara?
- . Eta eraso izan duena zure anai/arreba/neba/ahizpa txikia baldin bada? Zuri ere min ematen dizu?
- . Zer egin beharko litzateke norbaiti min ematen zaionean?

IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA

. Ikasleei honelako zerbait esan ahal zaie: Norbaiti min ematen zaionean, haren bihotza zimurtu egiten da, papera zimurtzen den modu berean. Mina bere bihotzean gelditzen da. Min horrek guk uste baino luzaroago irauten du bertan. Eta min hori, zenbaitetan, oso zaila da lisatzen. Min ematen diezun pertsonen bihotzetan utzitako zimurra paperekoak bezain zailak dira lisatzen. Eta nahiz eta eragindakoa mina baretzen ahalegindu, min hori iltzatuta gelditzen da min eman diogun pertsonaren bihotzean. Sarri, ez dugu egiten duguna kontrolatzen eta pentsatu gabe esan ohi ditugu hitz batzuk edo egin ohi ditugu beste min ematen dien zerbait. Gero, egindakoari buruz pentsatuta, damutu egiten gara, baina jada beranduegi izaten da atzera egiteko. Ezin dugu pertsona horri egindakoa ezabatu (nahiz eta barkamena eskatu) eta, horregatik uzten ditugu, hain zuzen ere, beste pertsonen bihotzetan zimurra. Inori tratu txarra eman ordez, haserretzen garenean arnasa hartu beharko genuke, egoerari kanpotik begiratzen saiatu, pixka bat baretu eta pentsatu. Pentsatu egin behar dugu inori min emango dion ezer egin aurretik, eta pentsatu beharko genuke ez geniokeela beste inori egin behar guri egitea ez genukeen ezer. Zer sentituko genuke hori bera guri egingo baligute?

Zerbait pentsatu gabe egiteagatik norbaiti tratu txarra ematen badiogu, barkamena eskatzeaz gain, min hori konpondu egin beharko genuke; hots, lagundu egin beharko genioke guk eragindakoa emozio desatsegin hori arintzen eta berriz emozio atseginak izan ditzan, errespetatuz, betiere, pertsona horrek behar duen denbora, eta tratu txar hori inoiz gehiago ez egiteko konpromisoa hartu beharko genuke.

. Ahalegindu behar da ikasleek besteen minarekiko enpatia gara dezaten, eta, horretarako, baliteke honako esaldi honek laguntzea: «Ezin gara zoriontsu izan beste norbait zoriontsu ez den artean».

. Ordeztearen teknika erabili ahal da beraien jokabidearekin beste eragin diezaieketen minaz jabetzeko (eta eraso jasan duen pertsona zure anai/arreba/neba/ahizpa gaztea balitz?) Min ematen al dizu horrek? Ondo iruditzen al zaizu? Zure barruan sentitzen duzu zure anaiaren/arreba/neba/ahizparen mina? Pena ematen dizu?

12. ariketa

«Nola zaindu eta tratatu ditzakegu ongi beste umeak?» (Batzarra)

DESKRIBAPENA

Ikasleek betaurreko magikoak jantziko dituzte berriro, eta borobilean eseriko dira. Irakasleak «Marra gorria» ariketako zenbait egoera (berdinen arteko harremanetakoak eta ikasle gehienei emozio atseginak eragin zizkietenak) gogoraraziko dizkie ikasleei, agerian jartzeko denak direla zaintza-harremanetako egoerak, hots, agerian uzteko denoi gustatzen zaigula zainduak izatea: guri laguntzea, eskerrak ematea, gurekin jolastu nahi izatea, gu defenditzea, etab.

Bateratze-lanean jarraitzeko, ikasleei galdetuko zaie nola tratatuak izan nahi dugun, ea besteak zaintzen ditugun, nola zaintzen ditugun, besteak zaintzeko orduan nola sentitzen diren, etab. Eta arreta jarriko da besteak zaintzeko eta haiei tratu ona emateko moduetan.

Aurrez adierazi den gisan, batzarra eta bateratze-lana egin ondoren, «Ikusezinaren zuhaitza, maitasunaren zuhaitza» (14. ariketa) horma-irudia betetzen jarraitu ahalko dute ikasleek; oraingoan, pertsonen elkar zaintzeko eta ongi tratatzeko moduak adieraziko dituzte (marigorringo gisa).

HELBURUA

Ikasleei laguntzea tratu onean sakontzen, ez soilik besteei minik ez emateko, baizik eta besteekiko harremanetan errespetua, enpatia eta maitasuna baliatzeak geure buruarekin ondo sentiarazten gaituelako.

Baliabideak

IKUSEZINA IKUSTEKO BETAURREKOAK

IKASLEEI EGITEKO GALDERAK

- . *Niri zer tratu jasotzea gustatzen zait?*
- . *Zer sentitzen dut besteek ongi tratatzen nautenean?*
- . *Zer sentitzen dute ongi tratatzen ditudan umeek?*
- . *Zer sentitzen dut besteak ongi tratatzen ditudanean?*
- . *Besteak nola zaindu eta tratatu ditzaket ongi?*

IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA

. Tratu ona: norbaitekin barre egitea, jolastea, entzutea, bidelagun izatea, errespetatzea, pazientzia izatea, laguntzea, baloratzea, adeitsua izatea, bestea ezagutzeko interesa izatea, babestea, zaintzea, defenditzea, mina eman ondoren barkamena eskatzea, emandako mina erreparatzea, asertiboki jokatzeko gatazkak modu baketsu eta demokratikoan konpontzea, etab. Horrez gain, jendeari osoki begiratzea ere bada tratu ona ematea (eta ez soilik egin ezin dutenari garrantzia ematea).

. Interesgarria litzateke ikasleei laguntzea besteak ongi tratatzen dituztenean beraiei zer gertatzen zaien hausnartzen, zer sentitzen duten, etab., halako jokabideak indartu daitezkeen.

. Bukatzeko, garrantzitsua izango da irakasleak adieraztea ikusezina ikusteko betaurrekoak maitasunaren betaurrekoak direla, maitasuna dela besteei estimuz begiratzen laguntzen diguna, baita geure buruari ere; maitasuna dela besteei tratu ona ematen laguntzen diguna, baita pozago bizitzen ere.



. Irakasleak Humberto Maturanaren esaldia ekar dezake gogora: inork maite ez bagaitu, gaixotu egiten gara. Gogora ekar daiteke, halaber, Rhesus tximu kumeekin egindako ikerketa bat: nahiago zuten berotan egon balantzaka ari ziren telazko amen gainean (amen igurtziak jasotzen egongo balira bezala), alanbrezko amen biberoretatik edan baino; horrek erakusten du ugaztunen maitasuna jasotzeko beharra handiagoa dela elikatzekoa baino. <https://www.xatakaciencia.com/biologia/la-madre-de-alambre-de-harlow-cuando-el-carino-es-mas-importante-que-el-sustento>

(Irudia: Freepik.com)

13. ariketa Laburpena eta Konpromisoak (Batzarra)	
DESKRIBAPENA	<p>Irakasleak «Ideien laburpena eta Konpromisoak» (6. eranskina) fitxa emango die ikasleei, bertan idatz ditzaten honako gai hauei buruz ikasi dutena laburtzen duten zenbait esaldi: Berdinak gara, ezberdinak gara, elkarri ekarpenak egiten dizkiogu, duintasunerako eskubidea, tratu txarrak, tratu txarrek sortzen duten mina eta tratu ona.</p> <p>Ondoren, ikasleak borobilean jarriko dira batzarra egiteko, eta erdian aulki bat jarriko da. Irakasleak zenbaki bat emango dio ikasle bakoitzari, eta zenbakiak esaten hasiko da, ausaz. Irakasleak esaten duen zenbakia daukan ikaslea aulkira igoko da eta ikasitakoa laburtzeko idatzi dituen esaldiak irakurriko ditu, eta hurrengo hiru asteetarako hartu dituen bi konpromisoak ere adieraziko ditu; konpromiso horiek gelakideekin duen harremana eta gatazkaren bat izan duen umeren batekin duen harremana hobetzeko izango dira.</p> <p>Aurrez adierazi den gisan, batzarra eta bateratze-lana egin ondoren, «Ikusezinaren zuhaitza, maitasunaren zuhaitza» (14. ariketa) horma-irudia betetzen jarraitu ahalko dute ikasleek; oraingoan, (tximeletetan) adieraziko dituzte beste pertsoneri tratu ona emateko hartuko dituzten konpromisoak, eta aldi berean pertsona gisa aldatzen eta hobetzen lagunduko dietenak.</p>
HELBURUA	<p>Ariketa honek zenbait helburu ditu: Batetik, ikasleei laguntzea ikasitakoa gogoratzen eta laburtzen, azpimarratuz, alde batetik, maitasuna dela pertsonak gupidaz ikustea ahalbidetzen diguna (beraien indargune, ahultasun, behar eta abarrekin); eta, bestetik, pertsoneri eskertu egin behar zaiela beraiengandik ikasi ahal dugun guztia, eta errespetatu eta maitatu egin behar ditugula; horrek, hain zuzen, pertsonen duintasunerako eskubidea indartzeaz gain, laguntzen baitigu askoz zoriontsuago izaten eta elkarrekin bizitzen. Helburuetako beste bat da ikasleek, ikasitakoaren ondoren, zenbait konpromiso hartzea gelakideekin duen harremana hobetzeko.</p>
Baliabideak	<p>Aulkia, papera, boligrafoa...</p>
IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA	<p>. Ariketa honetan irakasleak musika lasaigarria jar dezakete, umeek errazago konekta dezaten barnealdearekin eta gogora dezaten proposamen didaktikoko saioretan hitz egin eta bizi izandakoa, eta «Ideien laburpena eta Konpromisoak» fitxa bete.</p> <p>. Irakasleak lanerako giro egokia sortzen lagunduko du, inor ez dadin deseroso sentitu eta denek izan dezaten beren esaldiak eta bi konpromisoak adierazteko konfiantza.</p>

4. jarduera. «ZABALKUNDEA ETA EBALUAZIOA»

Desberdintasunari eta Elkarbizitzari buruz ikasitakoa ikastetxeko pertsoneri helaraztea, horma-irudiaren (ariketa honetan egin edo bukatuko dutena) eta ikaspenen eta esperientziaren bitartez.

Ikasketa eta zerbitzu solidarioko esperientzia gisa planteatutako desberdintasunari eta elkarbizitzari buruzko proposamen didaktiko honen azken jarduera izango da. Jardueraren helburuak honako hauek dira:

- Desberdintasunari eta elkarbizitzari buruz ikasitakoa laburbiltzen duen horma-irudia egitea/bukatzea.
- Desberdintasuna eta elkarbizitza sanoaren balioari buruz ikasitakoa beste pertsona batzuei helaraztea, sentsibiliza daitezen.
- Parte hartu duten ikasleek eta irakasleek ikasitakoa eta bizi izandako esperientziak ebaluatzea.

Jarduera hau osatzen duten hiru ariketak (horma-irudia, sentsibilizazio-ekintza eta ebaluazioa) honako hauek dira:

14. ariketa. «Ikusezinaren zuhaitza = maitasunaren zuhaitza» (Horma-irudia)

Horma-irudia egitea/bukatzea.

15. ariketa. «Sentsibilizazio-ekintza»

Desberdintasunaren balioari eta tratu onari buruz ikasitakoa, horma-irudiaren laguntzaz, besteei helaraztea, sentsibiliza daitezen.

16. ariketa. Ebaluazioa

Ikasitakoa eta bizi izandako esperientziak ebaluatzea.

14. ariketa

«Ikusezinaren zuhaitza = maitasunaren zuhaitza» (Horma-irudia)

DESKRIBAPENA

Ikasleek pixkanaka osatua izango dute **horma-irudia**, edo, bestela, orain hasiko dira osatzen: «**IKUSEZINAREN ZUHAITZA = MAITASUNAREN ZUHAITZA**» horma-irudian adieraziko dute ataza hau egin duten artean zer ikasi duten. Horretarako 1. *eranskin*eko zenbait irudi erabil daitezke.

Ikasleek zuhaitzaren horma-irudian honako hau adierazi dezakete:

- Zuhaitzaren sustraietan, duintasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea eta pertsonen bestelako eskubideak.
- Enborrean, pertsonak batzen gaituena, adarretan elkarrengandik desberdintzen gaituen hori.
- Txorietan, elkarri egiten dizkiogun ekarpenak.
- Landare-zorrietan, besteekiko tratu txartzat hartzen dituen jarrerak.
- Marigoringoetan, besteekiko tratu ontzat eta zaintzat hartzen diren jarrerak.
- Tximeletetan, hobetzeko konpromisoak...



Horma-irudia korridore batean edo umeek ikasitakoa beste ume batzuei talde txikitan azaltzeko leku batean ezarriko da.

HELBURUA Beste pertsona batzuek (eta ikasleek beraiek) harreman hobeak izan ditzaten, ikasitakoa zabaltzeko duen garrantziaz, arduraz eta eraginaz jabetzea.
Baliabideak Horma-irudia, errotuladoreak, artaziak, kola, papera...
IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA . Ikasleek beraien kabuz horma-irudian idazten dutenaz gain (beraien gogoetak, konpromisoak, etab.) horma-irudia osa liteke irakasleak egindako laburpen batekin, eta bertan bildu horma-irudian oraindik ageri ez diren zenbait ideien laburpenak, batzarretan edo bestelako ariketetan atera direnak, esaterako: berdintasunari, desberdintasunaren balioari, duintasunerako eskubideari, tratu txarrei eta tratu onari buruzkoak. Ikusezina ikusteko betaurrekoak maitasunaren betaurrekoak direla azpimarratu behar da. Maitasuna baita pertsonak diren bezala ikustea ahalbidetzen diguna, baita beraien indarguneak, beraiengandik ikasten duguna eta beraiek zaintzera garamatzana zein zorientasuneranzko bidea egiten lagundu diezagukeena ere.

15. ariketa SENTSIBILIZAZIO-EKINTZA (I+ZS esperientziaren zerbitzua)
DESKRIBAPENA Ariketa honetan ikasleek ikasketa eta zerbitzu solidarioko esperientzia-zerbitzua egingo dute. Ikasleek ikastetxeko beste ikasle batzuei erakutsiko die margotu duten horma-irudia eta azalduko die zer ikasi duten desberdintasunaren balioari, tratu txarrei eta tratu onari buruz, besteak beste. Horrez gain, ikastetxeko familien artean ere zabaldu daiteke egindako lana.
HELBURUA Bizi garen mundu hau hobetzeko ekintzetan aktiboki parte hartzearen garrantzia ikastea eta bakoitzak bere gain hartzea horretan dugun erantzukizun politikoa; kasu honetan, errespetuaren eta elkarbizitzaren aldeko mezuek zabaltzeko erantzukizuna.
Baliabideak Horma-irudia.
IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA . Garrantzitsua litzateke irakasleek ikasleei laguntzea ikastetxe guztia desberdintasunaren balioaz eta tratu onaren garrantziaz jabetzeko duen garrantziaren zergatiaz hausnartzen. . Erraztu beharko litzateke ikasle guztiek parte har dezaten beste ikasleei horma-irudiko zenbait ideia aurkezten. . Komenigarria litzateke ariketa honetan ikasleek elkarren artean duten jokatzeko moduari erreparatzea, esaten denaren eta egiten denaren artean koherentzia egon dadin.

16. ariketa Ikasitakoa eta bizi izandako esperientziak ebaluatzea (Batzarra)
DESKRIBAPENA Batzar bat egin eta ikasleek ikasitakoa eta ikasketa eta zerbitzu solidarioko esperientzia zein ataza osoa balora lezakete.
HELBURUA Ikasitakoa eta bizi izandako esperientziak ebaluatzea.
IRAKASLEAREN AGENDA EZKUTUA . Irakasleak ere ikasketei eta esperientziari buruzko beren balorazioa eskainiko du. . Garrantzitsua izango da baloratzea ea ikasleek beraiek hartutako konpromisoak betetzen dituzten eta maila diskurtsiboan ikasitakoarekin koherentzia mantentzen duten beraien harremanetan.

1. eranskina: «IKUSEZINAREN ZUHAITZA = MAITASUNAREN ZUHAITZA» osatzeko erabil daitezkeen irudiak

MAITASUNAREN ZUHAITZA (Ikusezinaren zuhaitza) izeneko horma-irudian honako hauek jar litezke:

- ENBORREAN, pertsonak batzen gaituena, gure arteko antzekotasunak.
- Adarretan, elkarrengandik zerk desberdintzen gaituen.



- TXORIETAN,
elkarri egiten dizkiogun ekarpenak.



- Zuhaitzaren SUSTRAIETAN,
duintasunerako eskubidea, hezkuntzarako eskubidea eta bestelako eskubideak.

- LANDARE-ZORRIETAN,
besteekiko tratu txartzat hartzen ditzen jarrerak.



- MARIGORRINGOETAN,
besteekiko tratu ontzat eta zaintzat hartzen diren jarrerak.



- TXIMELETETAN,
ikasleen hobetzeko konpromisoak, etab.



(Irudiak: Freepik.com)²

² <https://image.freepik.com/vector-gratis/coleccion-pajaros-hechos-mano-23-2147744066.jpg> ; <https://www.freepng.es/png-3wacai/> ; <https://www.freepik.es/vector-gratis/bonita-mariquita-hoja-848601.htm#page=1&query=mariquitas&position=14> ; <https://www.freepik.es/vector-gratis/ilustraciones-mariposas-colores-725231.htm#page=1&query=mariposas&position=39>

2. eranskina: «AUTORRETRATUA: NOLAKOA

Izena:

Sexua:

Norekin bizi zara etxean?

Non jaio zinen?

Non jaio ziren zure familiako kideak?

Zer gustatzen zaizu?

Zer ez zaizu gustatzen?

Zure ustez, nolakoa zara? Zer ezaugarri positibo dituzu? Ni naiz...

Zer egiten duzu oso ondo?

Zer gairi buruz ikastea gustatzen zaizu?

Zertan jolastea gustatzen zaizu?

Zure familiarekin zer egitea gustatzen zaizu?

Zer behar duzu alai eta pozik egoteko?

Zure ustez, zertan zara beste umeen antzekoa?

Zure ustez, zertan zara desberdina beste umeen aldean?



3. eranskina. ANA MONTAÑAREN TUTORIALA ERREINU IKUSEZINEKO BETAURREKOAK diseinatzeko



KAIXO, ANA MONTAÑA NAIZ, ETA
ORAIN SAMUREN LAGUNA NAIZ.

SAMU EZAGUTZEAK BETAURREKO
MAGIKO BATZUK EMAN DIZKIT, ETA
ERREINU KIUSEZINA IKUS DEZAKET



ZUK ERE NAHI DITUZU HALAKO
BETAURREKOAK ERREINU IKUSEZINA
IKUSI AHAL IZATEKO?



OSO ERRAZA DA!

HAU BEHAR DUZU:

- 1- KARTULINA BAT BETAURREKOEN TXANTILOIAREKIN
- 2- GURAIZEAK ETA KOLA EDO CELLO
- 3- KOLORE ARGIKO ZELOFANA



1. URRATSA

BETAURREKOEN TXANTILLOIA HANDITU ETA
MOZTU

BI TXANTILOI BERDIN BEHAR DITUZU



2. URRATSA

ZELOFANA MOZTU BETAURREKOEN
NEURRIRA



3. URRATSA

ZELOFANA ITSATSI OSO KONTUZ BI
TXANTILOIEN ARTEAN, SANDWUICH BAT
BALITZ BEZALA




HORTXE ZURE BETAURREKO MAGIKOAK!!!

JANTZI ITZAZU, ETA

BEGIRATU

DENEI MAITASUNEZ!

IKUSEZINA IKUSTEKO BETAURREKOEN TXANTILOIA, hedatu beharrekoa



(Irudia: Freepik.com)

4. eranskina: Zenbait galdera
«MARRA GORRIA» bizipen-dinamika egiteko

- . *Nori gustatzen zaizkio txakurrak?*
- . *Nori gustatzen zaizkio armiarmak?*
- . *Nori gustatzen zaio hondartzara joatea?*
- . *Nori gustatzen zaizkio makarroiak?*
- . *Nori gustatzen zaio brokolia?*
- . *Nori gustatzen zaio inork enbarazu egitea?*
- . *Nori gustatzen zaio lagunak izatea?*
- . *Nori gustatzen zaio maitatua izatea?*
- . *Nor haserretuko litzateke joko balute?*
- . *Nor haserretuko litzateke ezagutzen ez duen norbaitek irribarre egingo balio?*
- . *Nor haserretuko litzateke gustuko ez duen ezizen bat jarriko baliote?*
- . *Nor haserretuko litzateke lagun baten urtebetetze-ospakizunera gonbidatuko balute?*
- . *Nor jarriko litzateke triste gosea izan eta zer jan izango ez balu?*
- . *Nor jarriko litzateke triste inork berarekin jolastu nahiko ez balu?*
- . *Nor jarriko litzateke triste katu bat oparituko baliote?*
- . *Nor lotsatuko litzateke besteek barre egingo baliote?*
- . *Nor lotsatzen da denak berari begira jartzen direnean?*
- . *Nor poztuko litzateke aurkariak partida irabaziko balu?*
- . *Nor poztuko litzateke laguntza behar duenean norbaitek lagunduko balio?*
- . *Nor poztuko litzateke norbaitek zerbait egiteagatik eskerrak emango balizkio?*
- ...

5. eranskina: “TRATU TXARRA ZER DEN JAKIN” fitxa

JOKABIDEA	Ez da tratu txarra	Tratu txar fisikoa	Hitzezko tratu txarra	Gizarte-bazterkeria
Norbait jotzea				
Beti arrazoia eduki nahi izatea				
Norbait iraintzea				
Norbaiti gaizki hitz egitea				
Norbaiti gauzak ezkutatzea				
Norbaiti burla eta barre egitea				
Norbaiti ezizenak jartzea				
Norbaiti taldeko ekintzetan parte hartzen ez uztea				
Norbaiti ez ikusiarena egitea				
Inoiz barkamenik ez eskatzea				
Norbait zerbait egitera behartzea mehatxu bidez				
Norbaiti buruzko gezurrak esatea, lagunik eduki ez dezan				
Norbait beldurtzea				

Moldatutako taula; originala: COLLEL, Jordi eta ESCUDE, Carme (2007, 13-14).
Antezelanaren gida didaktikoa: PostData, Madril: Fundacion Autor.

Erantzunak:

JOKABIDEA	Ez da tratu txarra	Tratu txar fisikoa	Hitzezko tratu txarra	Gizarte-bazterkeria
Norbait jotzea		x		
Beti arrazoia eduki nahi izatea	x			
Norbait iraintzea			x	
Norbaiti gaizki hitz egitea			x	x
Norbaiti gauzak ezkutatzea		x		
Norbaiti burla eta barre egitea			x	x
Norbaiti ezizenak jartzea			x	x
Norbaiti taldeko ekintzetan parte hartzen ez uztea				x
Norbaiti ez ikusiarena egitea				x
Inoiz barkamenik ez eskatzea	x			
Norbait zerbait egitera behartzea mehatxu bidez		x		
Norbaiti buruzko gezurrak esatea, lagunik eduki ez dezan			x	x
Norbait beldurtzea		x		



**ZIUR PROPOSAMEN
DIDAKTIKO HONETAN EGIN
DUZUEN LANAREKIN,
GOGOETEKIN ETA HARTU
DITUZUEN
KONPROMISOEKIN ASKO
GOZATU ETA IKASI
DUZUELA
ZORIONAK... ETA
MAITASUNA
GUZTIONTZAT!**